

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2019 FORU DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, Honen bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, haurren eta gazteen arloan lanean diharduten Bizkaiko aisialdi eta astialdiko erakundeei emateko, 2019ko udan udalekuak, kanpamentuak eta auzolandegiak antola ditzaten.**

Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak bere 7.c.2) artikulua araberak, lurralde historikoei dagokie, nori bere lurraldearen barruan, Erkidego Osorako Erakundeen legeria betearaztea arlo hauetan: erkidegoaren garapena; emakumea; haur, gazte eta adinekoentzako politika, eta aisialdia. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek ere zuzenean jardun dezakete arloetan.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren arabera, sail honen eskumena da umeak eta nerabeak artatzea udaleku eta kanpamentuetako jardueretan.

Horregatik guztiagatik eta eskumenei buruzko artikuluko horiek direla bide, foru dekretu honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak, udan, haur eta gazteentzako jolas-aisialdia, denbora-pasa, bizikidetzak eta lankidetzak bultzatzen dituzten programa, proiektu eta jarduerak sustatu nahi ditu.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuaren eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailerako gaien buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko maiatzaren 21eko bileran aztertutik, honako hau,



XEDATZEN DUT:

**Artikulu Bakarra.—Foru Aldundiaren diru-laguntza batzuen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea**

Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, haurren eta gazteen arloan lanean diharduten Bizkaiko aisialdi eta astialdiko erakundeei emateko, 2019ko udan udalekuak, kanpamentuak eta auzolandegiak antola ditzaten. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

## I. TITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria.—Diru-laguntzaren xedea**

1. Diru-laguntza hau emango da haur eta gazteentzako jarduera-programak antolatu eta garatzeko, edo programa horietan parte hartzeko, betiere programon helburua jolasa eta prestakuntza sustatzea bada. Hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen programak:

- a) Kanpamentu finakoak: iraupenak gutxienez ere bost (5) gauekoa izan behar du, eta, gehienez, hamalau (14) gauekoa. Gutxienez, 15 partaide izan behar dituzte; 6 eta 18 urte bitartekoak izan behar dute eta Bizkaiko Lurralde Historikoan errol-datuta egon behar dute.
- b) Kanpamentu ibiltariak: iraupenak gutxienez ere bost (5) gauekoa izan behar du, eta, gehienez, hamalau (14) gauekoa. Gutxienez, 10 partaide izan behar dituzte; 14 eta 30 urte bitartekoak izan behar dute eta Bizkaiko Lurralde Historikoan errol-datuta egon behar dute.
- c) Udalekuak: iraupenak gutxienez ere bost (5) gauekoa izan behar du, eta, gehienez, hamalau (14) gauekoa. Gutxienez, 15 partaide izan behar dituzte; 6 eta 18 urte bitartekoak izan behar dute eta Bizkaiko Lurralde Historikoan errol-datuta egon behar dute.
- d) Udaleku irekiak: iraupenak gutxienez ere bost (5) egunekoak izan behar du, eta, gehienez, hamabost (15) egunekoak; egunok ondoz ondokoak izan behar dira, eta espazio berean eman. Gutxienez, 15 partaide izan behar dituzte; 6 eta 18 urte bitartekoak izan behar dute eta Bizkaiko Lurralde Historikoan errol-datuta egon behar dute.
- e) Auzolandegiak: iraupenak gutxienez ere bost (5) gauekoa izan behar du, eta, gehienez, hamalau (14) gauekoa. Gutxienez, 10 partaide izan behar dituzte; 18 eta 30 urte bitartekoak izan behar dute eta Bizkaiko Lurralde Historikoan errol-datuta egon behar dute.

Partaideen adinari dagokionez, 2019an betetzen dutena hartu behar da kontuan; eta Bizkaian errol-datuta egoteari dagokionez, jarduera egiten den data da erreferentzia.

2. Diru-laguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2019ko ekainaren 15etik irailaren 9ra bitartean (egun bi horiek barne) gauzatu beharko dira, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Programaren zuzendariak eta begiraleek Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza esku-dunak eman edo homologatutako titulazioa izan behar dute, edo, bestela, aisialdi eta astialdiko titulazio baliokidea.  
Pertsona horiek dedikazio eskusiboz beteko dituzte beren eginkizunak eta jarduerak dirauen aldi osoan bertan egon beharko dute.
- b) Jarduerak begirale bat (1) eduki beharko du lehen hamar (10) partaideko.  
Lehenengo hamar (10) partaidetik gorako hamabost (15) partaideko multzo bakoitzeko, beste begirale bat beharko da talde bakoitzean.  
Praktikak egiten ari diren begiraleak ez dira zenbatuko ratio hauetarako.



- c) Adingabekoein lan egiten duten profesional eta boluntario guztiek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak 2019an emandako ziurtagiri negatiboa izan beharko dute.
- d) Eusko Jaurlaritzaren 1985eko ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuan xedatutakoa bete beharko da. Dekretu horren bidez, haur eta gazteentzako kanpamentuen, udalekuen, udaleku irekien, auzolandegien eta kanpamentu ibiltarien araubidea arautzen da.
3. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:
  - a) Berariaz lehiaketa-izaera agertzen duten kirol-programak edota kirol espezialitate zehatz batean edo batzuetan oinarrituta dauden programak.
  - b) Udako kirol-campusak.
  - c) Sexuaren araberrako diskriminazioa eragiten duten proiektuak.
4. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

  - a) Erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeagatik sortutako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak eta egitura funtzionala mantentzeko gastuak).
  - b) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.
  - c) Banku-kontuetako interes zordunak.
  - d) Interesak, errekareruak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.
  - e) Prozedura judizialen gastuak.
  - f) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan.
  - g) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.
5. Foru dekretu honen helburua erakunde eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

## 2. oinarria. — *Onuradunak*

1. Deialdi honen onuradun izan daitezke haur eta gazteak hezteko aisialdian eta astialdian lan egiten duten erakundeak, baldin eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako kasuetan ez badaude eta baldintza hauek betetzen badituzte:
  - a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
  - b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea.
  - c) Erakundearen estatutuetan jasotzea beren helburua haur eta/edo gazteen arloa dela.
  - d) Irabazi-asmorik ez izatea.
  - e) Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu beharko da, jarduera egiten den bitartean gertatzen diren ezbeharrak estaltzeko.
  - f) Emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko jarduketaren garapenean esperientzia eta ibilbidea egiaztatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 43. artikuluekin bat etorrita, foru-dekretu honen 6.2 oinarrian ezartzen den moduan.
2. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude erakunde hauek:
  - a) Kirol-klub eta -elkartek.
  - b) Ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak.



- c) Sexua dela-eta inor bazterteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso duten erakundeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua dela bide debeku hori ezarri zaienak, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean.

**II. TITULUA****ARAUBIDE JURIDIKOA****3. oinarria. — Aplikatu beharreko araudia**

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarrerren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere guxtienez 5.000 euro badira.

**4. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluaren ere.

**III. TITULUA****PROZEDURA****5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikulua araberak, diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).

2. Eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunaz gero hasi eta 2019ko ekainaren 21era bitartekoa, biak barne, izango da.

3. Diru-laguntza jaso dezakeen jarduera egin ondoren eta deialdia ebatzi baino lehen, dekretu honen 6. oinarriaren hirugarren atalean eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2019ko irailaren 2tik irailaren 13ra bitartekoa, biak barne, izango da.

**6. oinarria. — Aurkeztu behar diren agiriak**

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoak erabili behar dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Dokumentazio orokor eta espezifiko hau erantsi beharko da:

- Erakunde eskatzailearen IFZren kopia.
- Erakunde eskatzailearen estatutuen fotokopia.
- Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
- Banku-helbideraketaren fitxa.



- Aurreko lau letretan aipatutako dokumentazioa ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.
- e) Pertsona fisiko batek NAN elektronikoa erabiltzen badu eskabidea egiteko, jarduteko ordezkari-tza-ahalordea aurkeztu beharko du.
- f) Erakundearen kide anitzeko gobernu-organoko kideen kopurua jasotzen duen txostena; sexuaren arabera bereizi behar dira kideak, eta bereziki adierazi behar da zer generokoa den presidentea. Gobernu-organoko idazkariak edo idazkari-lanetan diharduenak sinatuko du txostena.
- g) Erakundeak programatzen duen udaleku, udaleku ireki, kanpamentu, kanpamentu ibiltari edo auzolandegi bakoitzeko, egoitzan eskatzen den ereduaren arabera-ko informazio bete beharko du, eta dokumentazio orokor hau erantsi:
- 1) Erakundearen proiektua, honako hauek jaso behar dituena: jardueren programa eta jarduerok egingo diren kokalekua, koordenatuak eta hurbilen da-  
goen errepidetik dauden sarbideak zehaztuta.  
Kanpamentu ibiltarien kasuan, etapak eta kanpatzeko aurrez ikusitako le-  
kuak adierazi beharko dira egutegian.
  - 2) Erakunde eskatzaileak kontratatutako erantzukizun zibileko aseguruaren fo-  
tokopia; agiri horrek Eusko Jaurlaritzaren 2000ko irailaren 1eko 169/2000  
Dekretuan ezarritako baldintzak jaso beharko ditu.
  - 3) Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak 2019an emandako ziurtagiri negati-  
boak, jardueran parte hartzen duten profesional eta boluntario guztienak.
  - 4) Zuzendarien eta begiraleen titulazioaren kopia, salbu eta titulazio hori Eusko  
Jaurlaritzak eman badu edo lehenago aurkeztu bada Euskara eta Kultura  
Saileko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalean.  
Elikagaien manipulatzailearen eta soroslearen titulazioaren fotokopiak ere  
aurkeztu behar dira, salbu eta lehenago aurkeztu bada Euskara eta Kultura  
Saileko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalean.
  - 5) Arduradunen (zuzendaria eta begiraleak) B2 euskara-maila edo baliokidea  
egiaztatzen duen titulazioaren fotokopia egiaztatua, diruz lagundu daitekeen  
jarduera euskaraz egiten bada eta agiri hori ez bada aurretik aurkeztu Eus-  
kara eta Kultura Saileko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalean.
  - 6) Emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduketan arloan duten espe-  
rientzia eta ibilbidea egiaztatzeko, agiri hauetakoren bat:
    - Azken hiru urteetan egindako jarduera eta lan nabarmenenen zerrenda.  
Enpresa sortu berria bada, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren  
arloan espezifikoa jarduera eta lanak egiteko konpromisoa.
    - Langileek generoaren arloan dituzten tituluak, prestakuntza eta curriculumak.
    - Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea erakundearen hel-  
burua dela jasotzen duen erakundearen sorrera-eskrituraren edo estatu-  
tuen fotokopia.
    - Berdintasunaren arloko enpresa-egiaztatagiri edo -bereizgarri bat, edo ema-  
kumeen eta gizonen aukera-berdintasunean entitate laguntzailea izateare-  
na, edo antzeko agiri ofizialen bat.
    - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana eta/edo familia, lana eta  
bizitza pertsonala uztartzeko neurriena.
    - Erakundearen zuzendaritza batzorde edo organoko kideen %40 gutxie-  
nez emakumeak direla agerrarazten duen ziurtagiria.
3. Diru-laguntza jaso dezakeen jarduera egin ondoren eta 2019ko irailaren 2etik  
13ra arte izango da (egun horiek barne), erakunde onuradunek dokumentazio hau egoi-  
tzan aurkeztu beharko dute:
- a) Jarduera egin dela egiaztatzeko agiria, jarduera egin den lekuko udal administra-  
zioak emana, edo, bestela, erakundeko ordezkariaren zinpeko deklarazioa.



Kanpamentu ibiltariak antolatzen badira, halako egiaztagiri bi aurkeztu behar dira, gutxienez, kanpamentua ibili den tokiei dagozkienak, edo, bestela, erakundeko ordezkariaren zinpeko deklarazioa.

- b) Parte-hartzailen zerrenda jasotzen duen erakundearen erantzukizunpeko adierazpena, horrela berezita: sexua, adina, erroldatutako udalerrria, jarduera zein hizkuntzatan garatu den eta parte-hartzaile bakoitzeko ordaindutako kuota.
  - c) Erakundearen erantzukizunpeko adierazpena, desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten parte hartzaileen kopurua adieraziz.
4. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, adierazi behar da zein diren erakundeak urtean aurreikusten dituen diru-sarrerak guztiak.
5. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidea sinatzen duen pertsonaren identifikazio-datuak.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berriaz uko egiten ez badiote horri.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Halaber, eskaera hau sinatuta baimena ematen zaio Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

#### **7. oinarria. — Eskabideak zuzentzea eta hobetzea**

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietaoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio erakunde eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

#### **8. oinarria. — Diru-laguntza emateko araubidea**

Laguntzak emateko, ezohikoa den sistema bat erabiliko da: hainbanaketa. Sistema hori Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluan ezartzen da.

Hainbanaketa sistema honen bidez, deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten erakundeei ematen zaizkie diru-laguntzak, aurkeztutako proiektuen arteko eraketarik egin gabe, eta foru dekretu honetan aurrekontu-muga gisa ezarritakoa hainbanatzen da eskatzaileen artean.

Kontuan hartuta dekretuaren helburua dela uda-garaian, haur eta gazteentzako jolas-aisialdia, denbora-pasa, bizikidetzak eta lankidetzak bultzatzen dituzten proiektuen antolaketa eta garapena erraztea, deialdi honetako diru-laguntzak emateko araubidea salbuespeneko hainbanaketa-sistema izango da.

#### **9. oinarria. — Diru-laguntzak emateko irizpideak**

1. Diru-laguntzen zenbatekoa ezartzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
  - a) Erakunde eskatzaile bakoitzari kopuru finkoa emango zaio, gehienez ere, mila eta bostehun (1.500,00) euro, antolaketa-gastuetarako laguntza gisa.



Kontzeptu hori dela-eta diruz lagundutako erakundeen artean banatuko diren zenbatekoen baturak deialdi honetako aurrekontu-mugaren %50 gainditzen badu, kopuru finko hori doitu egingo da, batura aurrekontu-mugaren %50 izateko.

- b) Egonaldiko kopuru finko bat emango da: euro bat eta hirurogei zentimo (1,60) parte-hartzaileko eta eguneko, kanpamentu, kanpamentu ibiltari, udaleku eta auzolandegietarako.

Bestalde, udaleku irekietarako, kopuru hori hirurogei zentimo (0,60) izango da, parte-hartzaile eta eguneko.

- c) Aurreko letran parte-hartzaileko eta eguneko ezarritako kopurua handitu daiteke, honako hau gehituta:

- 1) Zenbateko bat, laurogei zentimo (0,80) baino gehiago izango ez dena, eta kalkulatu dena kontuan hartuta parte-hartzaileek kuota gisa ordaindu dutena jarduerak iraun duen egunen arabera; eguneko kuotarik baxuenei lagunduko zaie.
- 2) Euskal kulturaren ezagutza eta herri kirolak sustatzen dituzten jarduerak sarzteagatik, laurogei zentimo (0,80), gehienez.
- 3) Gutxienez %33ko desgaitasuna duten eta/edo ofizialki aitortutako mendetasun-gradu bat duten neska-mutilei edo gazteei parte hartzeko aukera ematea, baldin eta egokiro integratu badaiteke jardueran. Kasu honetan, berrogei zentimo (0,40 euro) gehiago emango dira, gehienez.
- 4) Praktiketako begiraleak hartzeagatik. Berrogei zentimo (0,40) gehiago emango dira, gehienez.
- 5) 13 urtetik gorako langabetuak hartzeagatik. Berrogei zentimo (0,40) gehiago emango dira, gehienez.
- 6) Jardueran, euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzeagatik. Laurogei zentimo (0,80) gehiago emango dira, gehienez, euskara hutsean egindako jardueretan.

Aurrekontuetan erabilgarri dagoenaren arabera, eta betiere aurreikusitako muga maximoak errespetatuz, berriro kalkulatu ahal izango dira c) letra honetako kopuruak, eta proportzionalki murriztu ahal izango dira.

2. Behin aurreko zenbakian aipatzen diren balioak lortuta, kasu bakoitzean emango den diru-laguntza kalkulatzeko, formula hau erabiliko da:

Kopuru finkoa + [kopuru bat parte-hartzaileko eta eguneko (gehiakuntzekin, halakorik balego) X parte-hartzaile kopurua X egun kopurua (edo txandako egunen batez bestekoa, txanda bat baino gehiago bada)].

3. Erakunde eskatzailea ez den beste erakunde batzuk antolatutako jardueretan edo ekintzetan parte hartzen denean, diru-laguntzaren zenbatekoan soilik sartuko da parte-hartzaileko eta eguneko ezarritako kopurua eta horri dagozkion gehiakuntzak, halakorik badago.

4. Jardueraren aurrekontutik kendu egingo dira deialdiaren helburuari zuzenean lotuta ez dauden gastuak.

Foru dekretu honen babesean emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoek ezin izango dute gainditu diru-laguntza jaso dezakeen jarduerak sortutako gastu araztuaren %70, ezta erakundeak eskatutako kopurua ere.

#### **10. oinarria. — Aholkularitza**

Euskara eta Kultura Saileko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalak behar den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, web-orri honen bidez: <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileaisialdi>

**11. oinarria. — Ebazpena**

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, interesdunek, deialdi honetan, ez dute entzunaldiaren izapiderik izango behin-behineko ebazpen-proposamenaren ondoren, zeren prozeduran ez baitira jaso eta kontuan hartuko interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak baino.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehiezin, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuak emango du ebazpena, Kulturako zuzendari nagusiaren proposamena kontuan hartuta, Kultur Ekintzako Zerbitzuak txostena egin ondoren. Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten erakunde interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Egoitzan agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko zaie erakunde interesdunei.

Foru agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakeela foru agindu horren aurka, Euskara eta Kulturako foru diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta bihamunduan hasiko dira zenbatzen.

**12. oinarria. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna**

1. Foru dekretu honetako diru-laguntza ez da bateragarria Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste diru-laguntza batzuekin.

Hala ere, bateragarria izango da estatuko edo nazioarteko beste administrazio batzuek edota erakunde publiko zein pribatuek helburu bererako emandako beste diru-laguntza eta laguntzekin.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

**IV. TITULUA****DIRU-LAGUNTZAK KUDEATZEA ETA JUSTIFIKATZEA****13. oinarria. — Diru-laguntza ordaintzea**

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar egun baliiodunetan erakunde onuradunak ez badio beren beregi eta egoitzan agertzeko sistemaren bidez uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Diru-laguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 10 egun baliiodun igaro eta berehala, Kultur Ekintzako Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren





ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Hori egiaztatu ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako bat, edozein, ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

#### **14. oinarria. — Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea**

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Erakunde onuradunak ordainketa-gutun bat erabili behar du diru-laguntza forala bere ekimenez itzultzeko. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia. Itzuli behar den diru-laguntza ere aipatu behar da.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara eta Kultura Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

#### **15. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era**

Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen erakunde onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera 2019ko ekainaren 15etik irailaren 9ra bitartean egin behar dute (egun bi horiek barne).
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 60. artikuluekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean justifikatzea jarduerak egin direla, laguntza ematea eragin zuten baldintzak bete direla, eta diruz lagundu den proiektuari dagokion gastua nola aplikatu den ere bai. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira, egoitzan, 2020ko urtarrilaren 31ra arte (egun hori barne):

- a) Diruz lagundutako udaleku/kanpamentuaren garapena justifikatzeko eta ebaluatzeko jarduketa-memoria, hauek zehaztuta: zer zerbitzu eskaini diren, zer jarduera egin diren eta zer giza baliabide eta baliabide material erabili diren diruz lagundutako proiekturako.

Memoria horrek 5 orri izan beharko ditu gutxienez, eta 20, gehienez.

- b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituena:
  - 1) Proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dauden ereduaren arabera.
  - 2) Gastu-partida bakoitzean, diru-laguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda. Ez da beharrezkoa fakturak aurkeztea.

Bizkaiko Foru Aldundiak berak egoki irizitako laginketa-teknikak aplikatuko ditu frogagiriok egiaztatzerakoan, diru-laguntza egoki aplikatzeari



- buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio bidaltzeko aukeratutako gastu-egiaztagiriak, bai eta haiek ordaindu izanaren egiaztagiriak ere.
- 3) Dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zerrenda zehatza, eta, hala bada, finantzaketa propioarena ere bai, baldin eta horiek finantzatu badute diru-laguntza jaso duen jarduera; xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da partida bakoitzaren arabera..
- c) Diruz laguntzeko gastuaren aurrekontua justifikatzeko, foru diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiaztagiriak aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontrataziorako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada. Hornitzailearen aukeraketa txosten bidez justifikatu beharko da, proposamen ekonomikorik onuragarriena aukeratu ez denean.
- d) Egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarau, kartel, argazki, argitalpen, ikus-entzunezko eta informatikako materialen aleak, baita beste edozein motatako agiri grafikoren aleak ere; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza eman duela. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru dekretu honen 16. oinarriaren f) letran ezarritakoarekin bat etorruta.

**16. oinarria. – Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebeharrak**

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

- a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea diru-laguntza eman dionari, egoitzaren bidez.
- b) Diru-laguntza jaso dezakeen jarduera egiten den bitartean, honako agiri hauek izatea:
- 1) Zuzendariaren, begiraleen, elikagaien manipulatzailearen, soroslearen eta bestelakoen tituluen kopiak edo ziurtagiriak.
- 2) Parte-hartzaileen izenen zerrenda.
- c) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea diru-laguntza eman dionari, egoitzaren bidez. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipena egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- d) Euskara eta Kulturako Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta kultura arloko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- e) Euskara eta Kultura eta Ogasun eta Finantza sailek eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztatzeko egin dezaketen behar beste jardun onartzea.
- f) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da, hitzez hitz:  
«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza / Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.»  
Euskara hutsean garatutako proiektuetan, gainera, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da.
- g) EAEko hizkuntza ofizial biak erabiltzea diru-laguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta zabalkundeetan, bai euskarri grafikoan bai ikus-entzunezko komunikabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak...).



- h) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- i) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
- j) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsoneri buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.
- k) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduari 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.
- l) Deialdi honi dagokionez, foru diru-laguntza baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduari 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak.  
Onartutako azpikontratazioaren gehienezko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren %70 izango da.

**17. oinarria. — Itzulketa**

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Justifikatu beharra betetzen ez bada.
- b) Emandako diru-laguntzaren helburua betetzen ez bada.
- c) Proiektua egiteko epea betetzen ez bada.
- d) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- f) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

**18. oinarria. — Aurrekontuko partida**

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2019. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga hau da: Hirurehun eta berrogeita bederatzi mila (349.000) euro, 2019ko ekitaldiko partida honen kontura ordainduko direnak: 0405 G/232111/45100/0000 aurrekontuko partida, 2015/0023 proiektua.



2. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

**AZKEN XEDAPENAK****Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Ahalmena ematea***

Ahalmena ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, foru dekretu honetan xedatutakoa ondoen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarreen jartzea***

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarreen.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 21ean.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ